

JANASKE

8. FUNTSEZKO JARDUERA

Gure proiektuaren funtsezko jarduera janaria prestatzea da. Eskaintzen dugun ondasuna elikagaiak direnez, gure jarduera nagusia egunero zerbitzeko zerbait izatea izango da. Gure erabakiak egoera zaurgarrietan daudenen, hau da, gure bezeroen kopuruaren arabera erabakiko ditugu. Bezero asko baditugu, janari gehiago lortuko dugu. Buruan izan behar duguna da, gure enpresa ez dela dirua irabazteko, baizik eta jendea laguntzeko. Egun batean janaria eskaintzen ez badugu gure helburua ez da beteko. Horregatik, janariaren eskuraketan plan bat baino gehiago izango dugu. Plan bat egingo dugu janaria ez faltatzeko, egunero janari pizka bat gordetzen dugu eta horrela inoiz ez da egongo janari faltarik. Jantokia ezagutzeko kartelak egin beharko ditugu. Instalazioak garbitasun bat edukitzea ere nabarmenezko gauza da. Horretarako, garbitzaile bat kontratatu beharko dugu. Kartel horiek letra handiak, kolore bistosoak eta argazkiekin egingo ditugu. Bestalde, kaletik publizitatea egitea ere oso garrantzitsua da eta kalean bizitzen den jendeari informazioa aurrez-aurre ematea.